

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresa arrakastatsua izateko eta balorezko proposamena egin ahal izateko, edozein negoziotan bezala, zenbait funtsezko jarduera izatea nahitaezkoa dugu. Jarduera hauei esker, diru sarrerak lortu, bezero potentzialetara iritsi eta haiekin harreman efizienteagoak lortuko ditugu.

Funtsezko jarduerak horrela banatzen dira; ekoizpena, arazoak konpontzea eta plataforma edo sareko jarduerak.

Ekoizpena, taldean arituko gara, izan ere, bakoitzak bere jarduera partikularrak egingo ditu, baina altzairuen muntaketa guztion artean egingo dugu baina diseinuan Irati arituko da sormen asko duelako eta laguntza behar balu margoketan lagunduko genioke besteok.

Arazoak Anek konponduko ditu, hain zuzen ere, bera arituko da bulegoan, enpresako mugikorrarekin. Orduan, arazo bat izanez gero bera konpontzen saiatuko da behar denarekin kontaktuan jarriz, izan ere, hizkuntzak oso ondo menderatzen ditu eta gainera bezeroekiko harremanak izateko ez du zailtasunik. Erabili behar duen mugikorra lanekoa denez eta bulegoan egongo denez, laneko orduz kanpo ez du erantzungo, baina dei galduren bat badago, berriz ere dei egingo du. Guzti hau webgunearen bidez azalduko dugu.

Plataformako edo sareko jarduerak Aimarrek beteko ditu. Informatika gustuko duelako, eta gainera informatika kurtso bat du eginda. Webgunean bera arituko da, baita gure posta elektronikoko mezuak erantzuten ibiliko da. Baina webgunea sortzerakoan hasieran Iratiren laguntzarekin diseinua adostuko dute erakargarria izan dadin eta behin diseinua edukita, Aimar arduratuko da bezeroentzat beharrezkoa dena bertan jartzeaz. Adibidez harremanetan jartzeko beharrezko telefono zenbakia, posta elektronikoa, sare sozialak, eta gure enpresari buruzko informazio ugari, non kokatzen garen, zein den gure helburua...

Ane ere plataformako jardueretan arituko da, baina publizitatearekin. Hasieran, pertsona ezagun bakoitzaren jarraitzaileak aztertuko ditugu, eta gure bezero potentzialen perfiletan sartzen badira, berarekin kontaktatu eta

100€ eskainiko dizkiogu produktua bere jarraitzaileei aurkezteagatik. Horrela, bezero potentzial gehiago lortu ahal izango ditugu.

Produktuen banaketaz beste enpresa bat arduratuko den arren, gure enpresak gutxienez furgoneta bat izatea garrantzitsua dela iruditzen zaigu, izan ere, desegitetik guk ekarriko ditugu autoak moztuta daudenean eta muntaketa egiteko piezak ekartzen. Horregatik Maddik duen furgoneta erabiltzerako orduan ez dugu arazorik izango, bera arduratuko da produktuak lokalera ekartzeaz besteak lanean dauden bitartean. Maddik ere, aurrekontuak, nominak, etekinak, baimenak, diru-sarrerak, errenta aitorpena... koordinatuko ditu eta zalantzak izanez gero bere osabari galdetzeko aukera izango du.

